

opusdei.org

Zu Harria zara; harri horren gainean eraikiko dut Nik nire Eliza

Ratzinger kardinala da Aita
Santu berria, eta Benedikto
XVI.a deituko da

2005 Api 20

Joan Paulo II.aren hurbileko
laguntzailea, Benedikto XVI. izango
da. San Petri basilikak bildu diren
milaka fededunek pozez eta asko
elkarri besarkatuz hartu dute
albistea. Jorge Arturo Medina

Estevez diakonoen denako txiletarrak "Habemus papam" berbak esan dituenean une hunkigarriak izan dira.

Aita Santu berriak, Fedearen Kongregazioaren Burua zenean, Nafarroako Unibertsitateko Honoris Causa doktoretza jaso zuen 1998an. Hiru egun eman zituen Iruñean urtarrilaren 30etik otsailaren 2ra, eta Unibertsitatea sakonki ezagutzeko aukera izan zuen.

Aita Santuaren aldeko otoitzak

Zu Harria zara; harri horren gainean eraikiko dut Nik nire Eliza; eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak (Mt 16, 18-19).

Jainko Jauna, guganako duzun arduraz San Pedroren gainean eraiki zenuen Eliza, bera beste apostoluen buru ezarriz; begira bihotz onez

Benedikto gure Aita Santuari; eta San Pedroren ondorengo ezarri duzun ezkerro, emaiizu zeure grazia, zure herriarentzat fede bakarraren eta batasunaren agiriko iturburu eta oinarri izan dadin.

Fededun guztien artzain eta gidari zaren Jainkoa, begi onez begira zure Elizaren artzain jarri duzun Benedikto zure zerbitzariari; hitzez eta egitez lagun diezaiola bere gain daukan artaldeari, berarekin batean betiko bizitzara iritsi dadin.

Jauna, zaindu zeure babespean zure Eliza santua eta artzain eman diozun Benedikto gure Aita Santua.

Jesukristo. Jesusek galdetu zion Pedrori: Joanen seme Simon, hauek baiño gehiago maite al nauzu? Pedrok erantzun: Jauna, Zuk dena dakizu, Zuk ba dakizu maite zaitudala (Jn 21, 15. 17).

Apalik eskatzen dizugu, Jauna: sendo ezazu batasunean eta maitasunean

zure Eliza, eta zaindu ezazu eta
salbatu artzain eman diozun
Benedikto zure zerbitzaria, baita
bere gain daukan artaldea ere.

Jainko Jauna, Pedro dohatsuaren
ondorengoan artean, Benedikto zure
zerbitzaria aukeratu duzu artalde
guztiaren artzain; begi onez begira
otoitzean ari den zure herriari, eta
egizu, lurrean Kristoren ordezk
denak sendo ditzala bere senideak
eta Eliza osoa harekin bat izan dadila
batasun, maitasun eta bakezko
lokarriz, gero guztiek Zugan, arimen
artzain Horrengan, betiereko egia eta
bizia iritsi dezaten.